



## AKTA BILERA 2017/03/23: EUSKADIKO ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIA

### Partehartzaileak:

#### **PRESIDENTEA**

- GONZALO RODRIGUEZ AGUIRREGOITIA jn., REAS EUSKADIren ordezkar i moduan, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.

#### **IDAZKARIA**

- MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jn., Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Garapen Komunitarioko aholkulari juridikoa.

#### **KARGUAGATI KO KID EAK (ez dute boto-eskubiderik)**

- BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ and., Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.
- LIDE AMILIBIA BERGARETXE and., Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea.

#### **KID EAK (boto-eskubidea dute)**

- ERNESTO SAINZ LANCHARES jn., Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Garapen Komunitarioko zuzendar ia
- MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO jn., Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politika eta Garapen Komunitarioko aholkulari juridikoa.
- JOSÉ ALBERTO VICENTE jn., ASTIALDI SAREAre n ordezkar i moduan, aisialdi arloan gizartean esku hartzeko eta Euskal Herriko haur, nerabe eta gazteak hezteko erakundeen sarea.
- ALFONSO LÓPEZ MARTÍNEZ jn., EAPN Euskadiren ordezkar i moduan, pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin.
- PABLO MORATALLA SANTAMARÍA jn., EHLABEren ordezkar i moduan, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte a.
- MIKEL MALCORRA OCHOTORENA jn., ELKARTEANen ordezkar i, Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea.
- M<sup>a</sup> JOSÉ CANO MESÍAS and., FEDEAFESen ordezkar i moduan, Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarte en Federakuntza.
- TXEMA ODRIOZOLA AZURMENDI jn., FEDERPENen

ordezkari moduan, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioaren ordezkaria.

- PABLO GONZALEZ GUTIÉRREZ jn., FEVASen ordezkari moduan, Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkartearen Euskal Federazioaren ordezkaria.
- ESTEBAN RIVAS CALZADA jn., GIZATEAren ordezkari moduan, Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte.
- TERESA MAURA BARANDIARÁN and., HARRESIAK APURTUZen ordezkari moduan, Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKE koordinatzailea.
- IÑIGO VIDAURRAZAGA VIDAL jn., HIREKINen ordezkari moduan, Euskadiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Federazioa.
- NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO and., HIRUKIDEren ordezkari moduan, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarte
- MANUEL MERINO PASTOR jn., LARES Euskadiren ordezkari moduan, adindunen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarte – sektore solidarioa.
- JAVIER DOMÍNGUEZ ENTENZA jn., ONCEren ordezkari moduan, Espainiako itsuen erakunde nazionala
- GONZALO RODRIGUEZ AGUIRREGOITIA jn., REAS EUSKADIren ordezkari moduan, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.
- ELSA FUENTE DO-ROSARIO and., Euskadiko UNICEF batzordearen ordezkari moduan.

#### **GONBIDATUAK:**

- MARCOS MURO NÁJERA jn., Enplegu eta Gazteriako sailburuordea
- BORJA BELANDIA FRADEJAS jn., Lanbideko zuzendari nagusia
- EMILIO SOLA BALLOJERA jn., Gizarte Zerbitzutako zuzendaria
- MANOLO VILABRILLES GARCÍA jn., SAREEN SAREAren koordinatzailea.

#### **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK**

- MILA DOMÍNGUEZ VÁZQUEZ and., CONGDE Euskadiren ordezkari moduan, Euskadiren garapenerako GGKEen Koordinakundea.

<b><u>Lekua:</u></b>	Vitoria-Gasteiz, LAKUA II–Batzar gela: 6. zk.
<b><u>Eguna:</u></b>	27/03/2017 (astelehena)
<b><u>Ordua:</u></b>	12:00 – 14:00
<b><u>Mota:</u></b>	Ohikoa
<b><u>Bilerako aztergaiak:</u></b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1.– Kide berrien aurkezpena, Hirugarren sektore sozialaren izenena jarduten duten entitate eta erakundeen aurkezpena. Halaber, legealdian lantzeko gaien proposamena.</li><li>2.– Aurreko bileren akta irakurri eta onartu, hala badagokio.</li><li>3.– Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategiaren inguruan egindako aurre-pausoak.</li><li>4.– Gizarte Zerbitzuen itunak egiteari buruzko dekretu-proiektua.</li><li>5.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta: Hirugarren sektore sozialaren ekarpenak.</li><li>6.– Eskaerak eta galderak.</li></ol>
<b><u>Hizkuntza:</u></b>	Gaztelania

Bilkura 2017ko martxoaren 23ko 12:00etan hasi da.

Bilkura hasita, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak, Gonzalo Rodríguez Aguirregoitia jaunak, ongiatorri berezia egin dio Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu berriari, Beatriz Artolazabal Albeniz andreari, lehenengo aldiz parte hartuko baitu kide anitzeko aipatu organo horren bileran batean.

Ondoren, bide eman die gai-zerrendako puntuei, eta emaitza honako hau izan da:

### **1.– HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA ORDEZKATUZ DIHARDUTEN ERAKUNDEEN AURKEZPENA, ETA LEGEALDI HONETAN LANDU BEHARREKO GAIEI BURUZKO PROPOSAMENA.**

Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dauden erakundeek eta sareek, ondoren adierazten den ordenan, zer helburu, xede dituzten esan diote Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuari, eta labor azaldu dute beren ustez legealdi berrian zehar batera landu beharreko erronkak, kezkak eta asmoak.

- FEDERPEN, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa
- HARRESIAK APURTUZ, etorkinen aldeko Euskadiko GKEen koordinakundea.
- ASTIALDI SAREA, Euskal Herriko haur, nerabe eta gazteekin esku-hartze sozialean eta aisialdi hezitzailean diharduten erakundeen sarea.

- EAPN Euskadi, Euskadiko pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko Europako Sarea.
- FEVAS, adimen-urritasuna dutenen aldeko Elkarreetako Euskal Federazioa.
- EHLABE (Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea).
- HIRUKIDE, Euskadiko familia ugarien elkarten federazioa.
- FEDEAFES (gaixotasun mentala dutenen eta haien senideen elkarten Euskadiko Federazioa).
- ONCE, Espainiako itsuen erakunde nazionala.
- ELKARTEAN, Euskal Autonomia Erkidegoko desgaitasun fisikoa duten lagunak koordinatzeko konfederazioa.
- UNICEF - Euskal Herriko Batzordea.
- GIZATEA (gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkartea).
- HIREKIN, Euskadiko gizarte-ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkartea.
- LARES Euskadi, adindunen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkartea – sektore solidarioa.
- REAS EUSKADI, ekonomia alternatibo eta solidarioko sarea.

Guztiak hitz egin ondoren, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak esan du hau dela Elkarrikeria Zibilerako Mahaiko kide moduan egiten duen lehen bilera, baina lehenago bildu dela bileran dauden erakunde gehienetako ordezkariekin.

Ondoren, bileran dauden bere lantaldeko pertsona guztiak aurkeztu ditu, eta esan du Sergio Juanena Guruceta jauna ere, Kabinete eta Komunikazioko zuzendaria, lantaldeko kide dela.

Jarraian, adierazi du hemendik aurrera lau urte dituztela denok batera, elkarren ondoan eta ahalik ongien koordinatuta lan egiteko hasi den etapa berrian. Etapa honetan, esan du, onartuta eta indarrean dago Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea, eta garatzen hasi behar da; alde horretatik, nabarmendu du adostasun zabala izan zela hura onartzeko, eta gizarte-politiken esparruan lan egiten hasteko aukera eman duela.

Gero, esan du taldean lan egitearen guztiz aldekoa dela, kontuan hartuta gizarte-errealitatea, eta zer interes ordezkatzeko dituen EAEko asoziazionismoak. Eta, horregatik, bere egiten du lanean jarraitu beharra, enpleguan eta gizarte-politikan aurrera egiteko, hirugarren sektore sozialarekin batera, baina beti abiapuntua izanik Eusko Jaurlaritzari dagokiola arloan aitzindari izatea, eta leialtasunez lan egitea.

Azkenik, esan du Euskadiko hirugarren sektore sozialaren ekarpen guztiak lagungarriak izango direla Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatu asmo dituen arau-proiektuak aberasteko, baina prozesu horretan kontuan hartu behar dela Euskal Autonomia Erkidegoko arkitektura instituzional berezia, eta, horrenbestez, ezin direla ahaztu gizarte-zerbitzuak ematean foru-aldundiek berek zuzeneko betearazpenerako dituzten eskumenak, ez eta, horren ondorioz, zerbitzu horien diseinuan eragina izateko duten ahalmena ere.

## **2.- AURREKO BILEREI BURUZKO AKTA IRAKURTzea ETA –HALA EGOKITUZ GERO– ONARTzea.**

Boto-eskubidea duten bertaratuek aho batez onartu dute 2016ko azaroaren 25ean egindako ohiko bilkurari dagokion akta, ELSA FUENTE DO-ROSARIO andreak (UNICEF Euskadiko Batzordea) proposatutako aldaketa honekin:

- Laugarren puntuaren barruan egozten zaion «gobernuaren planak» aipamena «Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak egindako lana» dela ulertu behar da.

### **3.- EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO ESTRATEGIA LANTZEAN EGINDAKO AURRERAPENEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Gizarte Politiketako sailburuordeak azaldu du Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategia diseinatu eta egiteko prozesua kontrolatzeko eta jarraipena egiteko talde moduan eraturako lan-batzorde mistoan sartu dela EAEko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) ordezkatuz, eta batzorde horren asmoa dela strategiaren dokumentua egiteko prozesua zuzentzen ari den lantaldea dinamizatzea, bultzatzea, eta laguntza ematea; batzorde horretan MANUEL MERINO PASTOR jaunak (LARES Euskadi) eta M<sup>a</sup> JOSÉ CANO MESÍAS andreak (FEDEFES) ere parte hartzen dute, biek ere Elkarriketa Zibilerako Mahaian dagoen hirugarren sektore soziala ordezkatuz.

Ondoren, M<sup>a</sup> JOSÉ CANO MESÍAS andreak esan du bi bilera egin direla: lehena martxoaren 21ean egin zen, eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko zenbait sarek esku hartu zuten; bigarrena, berriz, martxoaren 23an, eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko esku-hartze zuzeneko erakundeak izan ziren parte-hartzaile.

Era berean, esan du Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko strategiaren barruan landutako gaien artean honako hauek daudela:

- Estrategia egiteko prozesuan laguntzeko dokumentu diren eranskinak prestatzea.
- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta betebeharrak.
- Euskadiko hirugarren sektore sozialari buruzko liburu zuriaren laburpena (2015ean amaitua).
- EAEko administrazio publikoek (foru-aldundiek eta udalek) eta erakunde pribatuek Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareak sustatzeko egindako jarduerak.
- Hirugarren sektore sozialeko sareak beste autonomia-erkidego eta udal batzuetan (bereziki, Taula D'Entitats del Tercer Sector Social de Catalunya eta Kataluniako Generalitatea) sustatzeko jarduerak.

Azkenik, adierazi du aurreikusi zuten lan-egutegia betetzen ari dela, parte-hartzea oso aktiboa eta interesgarria izan dela, eta elkarriketa batzuk egin behar dituela; zehazki, honako hauek ordezkatuko dituztenekin: UNICEF Euskadiko Batzordea eta CONGDE (Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea).

Berriz hartu du hitza Gizarte Politiketako sailburuordeak, eta esan du ateratzen den Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzeko strategiaren dokumentuaren bigarren itzulia egingo dela, dokumentua egiteko diseinatutako lan-faseak amaitu ondoren; bigarren itzuli hori, alde batetik, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareekin egingo da, eta, bestetik, barruan, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko teknikariek, bai eta udalekin ere.

#### 4.- GIZARTE-ZERBITZUAK ITUNTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.

Gizarte Politiketako sailburuordeak esan du ez dagoela ezer berririk gizarte-zerbitzuak ituntzeko dekretu-proiektuari buruz, eta, bereziki, Kontratazio Administrazio Aholku Batzordeari dagokionez, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak eskaera bat egin baitzion Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kontzertu-araubideari buruzko dekretu-proiektuaren edukiaz eta, bereziki, administrazio publikoen kontratazio-araudiaren araubide-juridikotik bereizitako kontzertu sozialaren araubidea legearen arabera izateaz. Are gehiago, Kontratazio Administrazio Aholku Batzordeak berak erantzun du denbora asko beharko dutela beren iritzia emateko.

Hori dela eta, eta kontuan hartuta aipatu dekretua egitea Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren lehentasunezko jardura-ildo bat dela, Kontratazio Administrazio Aholku Batzordeak iritzia eman arte ez itzarotea erabaki da. Horretarako, jakinarazi du Gizarte Politiketako Sailburuordetzan EAeko talde parlamentarioen bidez landu dutela dekretu-proiektua, sektore publikoko kontratuei buruzko lege berrietarako ekarpenak igorri baitituzte.

Azkenik, gehitu du interesgarria litzatekeela lan-batzorde bat antolatzea EAeko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritzaren) eta Euskadiko hirugarren sektore sozialaren parte-hartzearekin, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian ordezkaturata dauden sareen eta erakundeen bidez.

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak esan du SAREEN SAREA gai horren jarraipena egiten ari dela, Diputatuen Kongresua bera gai-arlo horretan egiten ari den alegazioak, ekarpenak eta gogoetak aztertu ahal izateko.

Era berean, esan du ituntze-esparruaren errealitatea asko aldatu dela gizarte-zerbitzuak ituntzeko dekretu-proiektuaren lehen zirriborroaren testua egin zenetik, eta bereziki azpimarragarria dela zenbait autonomia-erkidegok onartu izana gizarte-zerbitzuen esparruan ituntze-arloa garatzeko eta arautzeko erregelamenduzko arautegia.

Aurrekoaren ondoren, adierazi du guztiz prest dagoela Eusko Jaurlaritzarekin batera eta lankidetzan aritzeko EAeko ituntze-ereduaren garapenean.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta boto-eskubidea duten bertaratu guztiak ados daudela, honako **ERABAKI** hau hartu da:

**Bakarra:** Lan-batzorde bat eratzea EAeko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritzaren) eta Euskadiko hirugarren sektore sozialaren parte-hartzearekin, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dauden sareen eta erakundeen bidez, eta izendatzen diren pertsonen esku hartuz.

#### 5.- DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EKARPENAK.

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak berriz esan du Euskadiko hirugarren sektore sozialak parte hartu nahi duela Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko legea lantzeko,

aldatzeko eta jarraipena egiteko prozesuan. Ondoren, adierazi du hirugarren sektore sozialak, praktikan, ekarpenak egin dituela gaian, eta, zehazki, aurrera egin edo aldatu beharrekotzat jotzen diren kontuetan.

Horren barruan, gogora ekarri du DSBEari buruzko batzorde teknikoa sortuta dagoela, eta gogoeta egin duela gaiari buruz, bai eta DSBEak EAEn daukan egoerari buruzko diagnostikoa ere, baina adierazi du gogoeta-prozesu horretan ez zaiola eman hirugarren sektore sozialari aukerarik gizarte-babeseko euskal sistemaz ekarpenak egiteko, dakiena eta gaian daukan esperientzia oinarritzat hartuta.

Hori dela eta, babes-sisteman hobetu beharreko alderdiei heltzeko gune espezifiko bat izateko eskatu du, eta esan Elkarrizketa Zibilerako Mahaia bera dela horretarako lekurik egokiena, DSBEari buruzko gogoetan lan egiteko foroa izan baitaiteke.

Jarraian, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak azaldu du ezen, EAeko gizarte-babeseko sistema hobetzeko, sistema horretaz gogoeta egitea dela EAJk eta PSEk legealdi honetarako izenpetutako Gobernu Akordioan jasota dauden landu beharreko puntuetako bat. Eta, mandatu horretatik abiatuta, gogoeta-lana egiten hasi da, eta horretarako eragilea izan da, halaber, Eusko Legebiltzarrean legez besteko proposamen bat aurkeztea eta onartzea helburu berarekin; hau da, aztertzea DSBEari buruzko Legeak EAeko herritar guztien beharrak betetzen dituen ala ez, zein diren behar horiek eta abar.

Hori dela eta, gehitu du aurreikusita dutela maiatzaren erdialdean proposamen bat bidaltzea Eusko Legebiltzarrera eredia hobetzeko, eta, horretarako, lan-bilerak egingo dituztela beren artean, aurkezten den dokumentuaren zirriborroa egiteko, horren idazketan Euskadiko hirugarren sektore sozialak esku hartzeko aukerarekin.

Gehitu du gogoeta hori bera egiten ari direla Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluan, funtsezko sistema baita DSBEaren kudeaketaren hobekuntza babestu eta bermatzeko. Eta, era berean, adierazi du gaia Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoari helaraziko zaiola, udalek eta foru-aldundiek lankidetzan jardun eta parte har dezatela eskatzeko, guztiek ere, zeinek bere errealitatea eta gaiak dakiena abiapuntutzat hartuta, egokituzat jotzen dituzten ekarpenak egin ditzaten.

Azkenik, eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariari erantzuteko, eskatu baitu organo hori izateko DSBEari buruz gogoeta egiteko foroa, esan du ez zuela gogoan izan edo aintzat hartu aukera hori, baina uste du mahaian dauden erakundeek eta sareek egin beharrekoa litzatekeela bereziki DSBEa eta orokorrean gizarte-babeseko euskal sistema hobetzeko beren ekarpenak, ekimenak edo gogoetak helaraztea, adibidez 15 eguneko epean, aztertuak eta ebaluatuak izan ahal izateko. Geroago, Eusko Legebiltzarrera igorriko da egiten den dokumentua, sektore guztiek jasotako ekarpenak kontuan hartuta, eta, behin betiko onartu baino lehen, berriz egin litezke gaiari buruzko ekarpenak.

Ekarpenak egiteko aldi horren xedea da aukera ematea Euskadiko hirugarren sektore sozialari daukaten errealitatea, gaiak dakitena eta metatutako esperientzia abiapuntutzat hartu eta jakinaraz diezaioten Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari zer ekimen abiarazi edo garatuko lituzketen, Administrazioko kide izango balira, DSBEa hobetzen laguntzeko. Baina beti jarduteko edo hobetzeko proposamen horiek bere lan-esparrutik abiatuta eginez, zabalagoa baita, eta kontuan hartuta inoiz ere ez dela zalantzan jartzen

DSBEaren ereduaren iraupena, adostasun zabalez onartu baitzen, EAEn pobrezia gutxitzeko helburuarekin.

Gaia eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak egindako proposamena eztabaidatuta, eta boto-eskubidea duten bertaratu guztiak ados daudela, honako **ERABAKI** hau hartu da:

**Lehena:** Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dagoen erakunde edo sare bakoitzak EAEko babes-sistema eta, zehazki, DSBEa hobetzeko edo aldatzeko ekarpenak igorri ahal izango dizkio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari apirilaren 7ra arte.

**Bigarrena:** Ekarpenak Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko idazkariaren bidez igorriko dira.

## **6.- GALDE-ESKEAK**

### **6.1.– Sendagaiak doan eskuratzea.**

TERESA MAURA andreak (HARRESIAK APURTUZ) baliabide ekonomikorik eta osasuntxartel indibidualik (OTI) ez duten etorkinen egoera salatu du; izan ere, ezin dute doako sendabiderik eskuratu, Eusko Jaurlaritzak OTIa dutenei baino ez dizkielako finantzatzen sendabide horiek.

Ondoren, esan du baliabide horiek ANESVADEk finantzatu dituela 2017. urtera arte, baina amaitu duela egiteko hori, eta GURUTZE GORRIaren esku utzi duela. Horregatik, baliabide ekonomikorik ez duten etorkin guztiei sendabide horiek eskuratzeko modua finantzatzea proposatu dio Eusko Jaurlaritzari, eta Osasun Sailaren arduradunak agerraldia egiteko eskatu du, sail horretan aipatu kolektiboaren alde zer egin asmo duten azaltzeko.

### **6.2.– Enplegurako orientabide espezializatua emateko zerbitzuak.**

ESTEBAN RIVAS jaunak (GIZATEA) adierazi du enplegurako orientabide espezializatua emateko zerbitzuek eta enplegu-zentroek ez dutela mugagabeko denbora-jarraitutasunik, eta eskatu du zerbitzua eteten den aldirik ez egoteko (edo, beharrezkoa izatera, aldi hori ahalik laburrena izateko), premiarik gabeko kalterik ez egiteko zerbitzu horien hartzaileei.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariak esan du aztertuko dutela proposamena, eta bere egiten duela kezka hori, eta, horregatik, uste du egokiena litzatekeela deialdiak, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, etengabe zabaltzea, berekin pertsonak ez artatzea dakarren etenik izan ez dadin.

Horregatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan zabaltze hori eragozten duen legezko konturik dagoen aztertuko dute.

### **6.3.– Diru-laguntzak.**

NATALIA DIEZ-CABALLERO andreak (HIRUKIDE) gogorarazi du ezen, EAEko esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen programaren barruan, proposatu zela diru-laguntzen hirugarren ildo berreskuratzea, hau



da, esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzeko jardueri buruzkoa (kendua izan baitzen).

Azken ondore horretarako, itxaron beharko da 2017rako EAeko Aurrekontu Orokorrak onartu arte, zertarako eta zehazteko zer-nola garatuko den diruz laguntzeko ildo hori eta zer aurrekontu-hornidura izango duen.

#### **6.4.– Gizarte-zerbitzuak ituntzeko dekretu-proiektua.**

TXEMA ODRIOSOLA jaunak (FEDERPEN) esan du lehentasunezkoa dela EAerako gizarte-zerbitzuak ituntzeko eredu bat onartzea, eta, horregatik uste du *menturatzea* dela garrantzitsuena, Eusko Jaurlaritzako organo batzuek kontrako irizpenak eman arren; Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, adibidez.

Gizarte Politiketako sailburuordeak esan du Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena hilgarria zela gizarte-zerbitzuak ituntzearen ikuspuntutik, eta, horregatik, azken legegintza-berritasunak direla eta, aurreko ekainean irizpen bat eskatu zitzaiola Kontratazio Administrazio Aholku Batzordeari ituntzeak egun duen bideragarritasunaz. Arazoa da Kontratazio Administrazio Aholku Batzordeak adierazi duela ezingo duela iritzirik azaldu epe labur-ertainetan, eta kontuan hartu behar da ematen duten irizpenak zehaztu edo finkatuko duela ituntzea EAEn zer esparrutan mugitu ahal izango den.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak esan du ezin dela ahaztu Kontratazio Administrazio Aholku Batzordeak bere garaian kontrako irizpena eman zuela Euskadiko hirugarren sektore sozialaren lege-proiektuari buruz, eta aurrekari hori beste kezka bat dela ituntze-bidean behar bezala aurrera egiteko moduari dagokionez.

Guztiz ere, azkenik esan du baikorra izan behar dela, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak ez zuelako aintzat hartu Kontratazio Administrazio Aholku Batzordearen kontrako txostena, eta aipatu lege-proiektuaren testuaren aldeko irizpena eman zuela.

#### **6.5.– Gizarte-zerbitzuak ituntzeko dekretu-proiektua.**

M<sup>a</sup> JOSÉ CANO andreak (FEDEAFES) galdetu du ea oraindik irekita dagoen EAeko bizitegi-bazterketari buruzko txostenaz ekarpenak egiteko epea.

Gizarte Politiketako sailburuordeak erantzun du itxita dagoela testuari buruzko alegazioak eta ekarpenak egiteko epea, baina egin ditzaketela, uste badute garrantzitsuak direla egin nahi dituzten ekarpenak, baina kasu horretan ahalik eta arinen eta lasterren jokatu behar dutela.

#### **6.6.– LARES EUSKADIren ordezkariak.**

MANUEL MERINO (LARES EUSKADI) jaunak esan du hau izango dela LARES EUSKADI ordezkatzuz agertzen den Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren azken bilera, eta, horregatik, aukera baliatu nahi du kide guztiei eskertzeko batera egin duten lana, eta berriz eskatzeko kontuan hartzeko adinekoen egoitzan dauden pertsonen parte hartzea, adinekoentzako egoitza-zentroen proiektu berrian lan egin dezaten.

Azkenik, esan du Euskadiko hirugarren sektore sozialaren eraikuntzan laguntzen jarraituko duela, gonbidatzen duten eztabaida-taldeetan eta lantaldeetan parte hartuz. Gizarte Politiketako sailburuordeak beti ekarpenak egiteko eta laguntzeko izan duen jarrera, borondatea eta gogoia eskertu dizkio, eta ziurtatu du ahalegina egingo dutela eskatu duena aintzat hartzeko, batzuetan batere erraza ez izan arren bihotza eta papera orekatzea.

### **6.7.– Familiaren Behatokia**

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariak, Familiaren Behatokia arautu eta eratzeaz HIRUKIDEk egindako proposamenari dagokionez, esan du organo hori eratuta dagoela, eta honen bidez araututa: 309/2010 Dekretua, azaroaren 23koa, Familien Euskal Behatokia sortu eta arautzen duena.

Hori esanda, gehitu du orain azterketak eta ikerketak eginez edukiz hornitzea dela orain garrantzitsuena.

### **6.8.– Pobreziari eta Gizarte-desparekotasunei buruzko inkestaren emaitzen gaineko txostena.**

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak, «Galde-eskeak» egiteko txanda amaitzeko, esan du Pobreziari eta Gizarte-desparekotasunei buruzko inkestaren emaitzen gaineko txosten egin berria oso interesgarria dela, eta, horregatik, ahalegina egingo duela txostena egin duen pertsona Elkarrizketa Zibilerako Mahaian agertzeko eta lan hori aurkezteko, organoa ados badago.

Eta beste gairik ez dagoenez, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak adierazi du saioa amaitu behar dela, 14:30ak direla.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 7a

O. E.

**Gonzalo Rodríguez Aguirregoitia jauna**      **Miguel Ángel Hurtado Pedroso jauna**  
Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakaria      Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko idazkaria.